

# FUNTSEZKO JARDUERAK

## ● AKTIBITATE GAKOAK

- **Aplikazio kolaboratzaileekin kontaktuan jarri**: Instagram, YouTube, Spotifyekin ere kontaktuan jarri beharko gera, haien baimena lortzea ezinbestekoa izango baita aplikazioa haien sare sozialekin lotzeko. Gainera, App Store eta Google Store bezala, beste diru iturrietako bat haiek emango digutenez, hauekin ere denboraz kontaktatu beharko dugu.
- **Aplikazioak eskaintzen dituzten plataformekin kontaktuan jarri**: Lehenik, App Store eta Google Store aplikazioen arduradunekin hitz egin beharko da aplikazioa prest dagoen momentuan jaurtitzeko. Horrez gain, diru iturrietako bat haiek hornituko digutenez, denborarekin kontaktatu beharko dugu haiekin.
- **Check It-en diseinua**: Aktibitate garrantzitsuenetako bat aplikazioaren diseinua izango da. Helburuzko bezeroak gazteak izango direnez, aplikazioaren diseinua erakargarria eta deigarria izan beharko da. Gainera, funtzio bakoitza pantailaren zein tokitan kokatuko dugun zehaztu beharko da. Beraz, ondo pentsatu beharko da erabiltzaileak aplikazioa irekitzen duen momentuan berehala gustatuko zaion egitura nola prestatu.
- **Publizitatea**: Aplikazioa ahalik eta pertsona gehienengana iristeko publizitateari probetxua atera beharko diogu. Horretarako, Euskadi Gaztea irratsaioan promozionatuko degu. Anuntzioak, promozioa eta abar aspektu adostu beharko dira honetarako.
- **Funtzio ezberdinen arduradunak**: Aplikazio hau aurrera eramateko hainbat trebezia ezberdin beharko dituzten zereginak egongo dira. Beraz, partaide bakoitzaren trebezien arabera zeregin bakoitza dagokion pertsonari asignatu beharko zaio. Adibidez, diseinua sortzeko imaginazio handiko pertsona bat beharko da; kolaboratzaileekin kontaktuan jartzeko azalpenak ematea, erlazionatzea eta argi hitz egiten dakien pertsona bat beharko da; publizitatearen atalerako pertsonengana iristeaz gain hauek ulertzeko trebetasuna duen norbait beharko da; etab.
- **Irabazien kudeaketa**: Proiektu honek irabazi batzuk izango ditu; hori dela eta, irabaziak nola banatu beharko diren adostu beharko da, partaide bakoitzaren lanaren arabera. Hau da, esate baterako App Store, Google Store, Instagram... horrenbestetan aipatu ditugun aplikazio hauei bueltan emango diegun diru kopurua ez da guk guretzat hartuko dugun diru kopuruaren berdina izango (haientzako kopurua baxuagoa izango da).
- **Gainerakoak**: Sare sozialetako kontuen kudeaketa kontuan hartu beharko da, gaur egun sare sozialetan gure enpresa edo proiektuaren kontu bat edukitzea ezinbestekoa delako *Check It-en* gertukotasuna adierazteko, promozionatzeko... “Atención al cliente” -ren tankerako zerbait antolatzea ere interesgarria izango litzateke.

## ● LEHENTASUNA

1. Guztietatik garrantzitsuenak bai aplikazio kolaboratzaileekin eta baita aplikazioak eskaintzen dituzten plataformekin kontaktuan jartzea izango litzateke, haiek gabe proiektua ezin delako ezta martxan jarri ere.

2. Ondoren diseinu egokia sortzea izango litzateke. Ez du aurreko puntuak bezain garrantzia asko, baina hala eta guztiz ere *Check It*-ek arrakasta edukitzeko ezinbestekoa da.
3. Publizitateak ere garrantzia handia izango du. Diseinua eta kontaktaketa jada gauzatuta, aplikazioa hedatzeko erramintarik garrantzitsuena da.
4. Funtzio ezberdinen arduradunen aukeraketa proiektuak konsistentzia edukitzeko eta eraginkorra izateko ezinbestekoa izango da.
5. Funtzio ezberdinen arduradunen aukeraketaren ondoren irabazien kudeaketa dator. Behin aplikazioa jaurtita, kontuan hartu beharko genukeen aspekturik pisutsuena izango litzateke.
6. Azkenik, gainerako jarduerak egongo lirateke. Nahiz eta aipatutako jarduera guztietatik garrantzia gutxien dutenak izan, proiektuari bultzada ematen lagunduko lukete.